



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2023/08/31**

### **Arabako Errioxa**

Azken bero bolada, Arabako geografia osoan bai gaez bai egunez tenperatura errekorrak izan dituen, gogorra izan da mahastiarentzat, eta estres gehigarria eragin dio uda honetako ur eskasia pairatzen hasia zen mahastiari.

Muturreko azken bero bolada hori baino lehen, mahastia pixka bat atzeratuta zegoen aurreko kanpainarekin alderatuta. Gaur egun, azken hamarkadako mahats bilketaren daten arabera normaltzat jo daitekeen egutegi batera egokitzeko bidean dago, hau da: mahats bilketa orokorra iraileko azken hamar egunetan egingo da. Abuztuaren erdialdetik aurrera izandako bero itogarrien ondorioz, mahastien egoera begetatiboan eta heltzearen bilakaeran alde handia dago. Mahasti gazteek, sustrai garapen txikiagoarekin, eta ureztatu ezin izan direnek, lurraren hezetasun faltaren ondorioz, hostoa galdu dute, eta, are gehiago, fruituaren ur erreserbetara jo dute bizirik irautea bermatzeko, eta, ondorioz, aleak txikitu dira eta azukre kontzentrazioa handitu egin da. Ureztatu ahal izan diren mahastiek eta sustrai garapen handiagoa duten mahasti zaharrek hobeto jasan dute beroa, nahiz eta beroaren ondorioak ere nabarmenak izan.

Osasunari dagokionez, gaur egun mahastia oso egoera onean dago. Espero diren euriteek gutxienez astebetetz jarraituko dute. Neurritzkoak badira, onuragarriak izango dira eta zikloa luzatzen eta erabat heltzen lagunduko dute. Arazoa izango litzateke euriteak iraunkorrak eta oso ugariak izango balira, botrytisa garatu litekeelako.

Ekoi zenari dagokionez, anduiek mahats ugari dute oro har, eta espero da bariedade zuri goiztiarrenak (tempranillo zuria eta kanpokoak, oso urriak) datorren astearen amaieran biltzen hastea, ziurrenik irailaren lehenengo hamarraldetik aurrera. Biura eta tempranillo beltzaren mahats bilketa datozen egunetako baldintza meteorologikoen mende dago, eta litekeena da denboran luzatzea, mahatsaren osasunak irauten duen bitartean. Baliteke aurten mahatsa landetan ikustea urria aurreratuta egon arte.

Azken egunetako bat-bateko tenperatura jaitsiera oso onuragarria izaten ari da. Orain arte ez da euririk erori Arabako Errioxan, baina datozen egunetan prezipitazio gehiago espero da. Beti bezala, mahats bilketaren inguruko egunak behin betikoak izango dira heltzearen bilakaerari eta, ondorioz, uztaren kalitateari begira: tenperatura leunak, gehiegikeriarik gabeko euriak eta gauaren eta egunaren arteko anplitude termikoak bilakaera desiragarria erraztuko lukete.

### **Arabako Txakolina**

Arabako txakolinaren inguruan ere, abuztua oso beroa izan da, eta azken bero boladak bete-betean eragin du. Mahasti batzuetan estres hidrikoa bereziki agertzen ari da mahasti ahulenetan, eta zimeltzen ari dira eta hosto basalak eta ale murriztuak erortzen ari dira. Azken egunotan 30-50 litro ur erori dira, eta tenperaturak behera egin du. Mahastia freskatu egin da, eta uraren ondorio positiboak ikusten hasi dira.

Datozen egunetarako euria espero da Arabako iparraldean ere, eta horrek baldintzatu egingo du mahats bilketa, irailaren erdialdean hasiko dena barietate goiztiarrentzat (Riesling eta Chardonnay). Hondarrabi Zuri txakolinaren barietate nagusia eta Petit Corbu barietarte, berriz, hamar egun geroago arte ez direla egongo uste da..

Osasunari dagokionez, bereziki une delikatuak gauden arren, are gehiago gaur egungo euri aurreikuspenekin, gaur egun osasun egoera bikaina duen mahastia ikusten da. Ziklo osoan zehar, mahasti gehienak oso osasuntsu mantendu dira, oso azalera mugatua izan ezik, gorrin larbatuaren eraso goiztiarrak jasan baitzituen.

Aiara bailarako errendimendu aurreikuspenei dagokienez, ezustekorik ez badago, ohiko bolumenak aurreikusten dira.

## **Ondorioa**

Guardiako Ardoaren Etxeko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua Arabako mahastien laginak hartzen hasi da, heldze prozesuari buruzko urteko azterlana prestatzeko. Hurrengo egunetan argitaratuko ditu, eguneroko buletinetan, Arabako Errioxako udalerriri eta aurkintzentzat, mahats bilketa orokortzen den egunetara arte mahatsaren parametroen jarraipena egitea ahalbidetuko duten datuak. Analisisien emaitzetan, arreta berezia jarri beharko zaie azidotasunari, pH-ari eta karga polifenolikoari. Teknikariek eta nekazariak mahats bilketaren aurretiko eta berezko lanak antola ditzaten lagungarri izango dira parametro horien eta graduaren arteko oreka, mahatsaren osasun egoerari buruzko informazioa eta gero eta zehatzagoak diren eguraldi iragarpenak. Upeltegietako teknikariek beren mahastietan eta beren hornitzaileenetan mahatsa noiz bildu erabaki beharko dute hurrengo asteetan, lortu nahi dituzten ardoen profilararen arabera eta mahatsa mahatsondoan uzteak dakartzan arriskuen arabera.

Guardia, 2023ko abuztuaren 31

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA